



## ARLOA: ORIENTAZIOA ETA TUTORETZA



## Sarrera

Orientazioa hezkuntza prozesuaren oinarrizko alderdia da, baita ikaslearen oinarrizko eskubidea ere. Etengabeko laguntza eta laguntza sistematiko prozesu gisa definitzen da eta ikaslearen giza-garapeneko, pertsonaleko, akademikoko eta profesionaleko ikasketa prozesuan laguntzea da helburua. Bizitzako oinarrizko ibilbideak orientatzen dituzten eskumenak eraikitzea zuzendutako ekintza multzoa dira.

Integratutako ekintza orientatiboa hezkuntza ekintzaren barruan ulertzen dugu. Gure ustez, alor honetako zenbait edukik eskola curriculum osoan ageri direla eta alor guztietan garatu behar direla modu transbertsalean. Dena dela, pentsatzen dugu hazkunde pertsonalean eragina duten ikasketak, gerora izango diren ikasketetan duten eraginagatik eta bizitzako alor askotan duten aplikagarritasunagatik, orientazioan eta tutoretzan landu behar direla.

Tutorearen irudia funtsezko elementua da eskolako bizitzan. Bere funtzioen artean irakaskuntza-ikasketa prozesuak koordinatzea, eta, beraz, eskolan ikaslearen hazkunderan eragiten duten elementuak eta pertsona bezala garatzen deneko errealitate sozio-familiarrean eragiten dutenak koordinatzea nabarmentzen dira.

Tutorearen lanaren helburua ezarritako curriculumaren eskumenetan ikaslearen hazkunderan laguntzea da. Bere jarduera zuzenean ikasleari, familiei edo bere heziketaz arduratzen diren pertsoneri bideratuta dago, baita bere garapenean eragiten duten irakasleei edo bere heziketan eragiten duten eragile sozio-kulturalei ere.

Lan horiek burutzeko tutoreek orientatzaileen laguntza izango dute ikasleen ugaritasunari arreta hobetu eta bermatzeko, eta tutoreen lana etengabe berritu eta hobetzeko.

Orientazioaren eta tutoretzaren alorrak ikasleari bi zentzutan eragiten dio, bata pertsona bezala eta bestea talde bateko kide bezala. Pertsonaren



heziketa indibiduala da baina harremanaren bidez hazten da, horregatik taldea ezinbestekoa da eta orientazioak bi zentzutan eragiten du.

## ARLOKO GAITASUNAK

### LEHEN HEZKUNTZAKO ESKUMENAK

- 1.- Norberaren ezagutza lortzea, autoestimua egokia lortzeko eta egoera berriei segurtasunarekin aurre egin ahal izateko.
- 2.- Eguneroko bizitzako gatazka egoerak eta esperientziak aztertzen ditu, eta erabakiak autonomiaz eta errespetuz hartu ahal izateko alternatibak baloratzen ditu.
- 3.- Ikasgelako bizitzan parte hartzea, funtzionamenduko jardueretan eta erabakietan inplikaturik eta elkarbizitzako arauak errespetaturik. Helburua jarrera arduratsua eta errespetuduna lortzea da.
- 4.- Jarrera irekia izanda, eskolako praktikak garatzeko moduari zein esfortzuari buruzko gogoeta egitea, eskolako errendimendua ebaluatzeko eta beharrezko laguntza onartuz, ongi egindako lana baloratuta.
- 5.- Inguruko pertsonekin lankidetzarako, entzuteko eta komunikatzeko jarrerarekin erlazionatzea, baloratu ahal izateko eta besteekin modu kreatiboan jolasteko, gozatzeko eta lan egiteko gai izateko.
- 6.- Injustizian eta indarkerian oinarritutako egoera sozialen aurrean kontzientzia hartzea, aniztasuna aitortuta eta errespetaturik. Helburua jarrerak justiziaren, berdintasunaren, bakearen eta elkartasunaren balioei erantzutea da aniztasun kulturala nagusi den gizartean.

## **BIGARREN HEZKUNTZAKO ESKUMENAK**

- 1.- Norbera ezagutzea eta errealitate sozio-laboralari buruzko gogoeta modu autonomoan egitea, etorkizuneko proiektu pertsonala norberaren gaitasunen eta balioen arabera definitzeko.
- 2.- Esperientzia propioak analizatzea eta alderatzea zein inguruko pertsona esanguratsuak baloratzea, norberaren irudi positiboa eta autokonfidantzan zein eraginkortasunean oinarritutako sentimenduak garatzeko.
- 3.- Bizitzako esperientziak eta egoera gatazkatsu pertsonalak zein sozialak irizpidearekin analizatzea, elkarrizketatik, besteekiko eraikuntzatik eta balioekiko zein pentsamenduekiko koherentziatik erabaki arduratsuak hartzeko, alternatiba desberdinak baloratuta.
- 4.- Ikasgelako eta zentroko bizitzan parte hartu, elkarbizitza arauak errespetatuz eta jarduera eta funtzionamendurako erabakietan parte hartuz, horrela hiritar arduratsu, errespetuzko eta kritiko bihurtuz.
- 5.- Jarrera irekia izanda, eskolako praktikak garatzeko moduari zein esfortzuari buruzko gogoeta egitea, eskolako errendimendua ebaluatzeko eta beharrezko hobekuntzak sartzeko, ongi egindako lana baloratuta.
- 6.- Inguruko pertsonekin modu sortzailean parte hartzea, beste batzuekin pentsamendua eraikitzea, ideiak eta esperientziak partekatzea, taldean lan egitea eta komunikazio sareak eratzeak duen garrantzia baloratuz.
- 7.- Injustizian eta indarkerian oinarritutako egoera sozialen aurrean modu kritikoan agertzea, aniztasuna aitortuta eta errespetatuta. Helburua jarrerak justiziaren, berdintasunaren, bakearen eta elkartasunaren balioei erantzutea da aniztasun kulturala nagusi den gizartean.



## ARLOKO EDUKIAK

Orientazio prozesua ikasketa prozesutzat hartuta, curriculumaren edukiak hezkuntza ekintza antolatzeko ardatzak dira. Curriculumaren edukiak ikasleak bere orientazioaren protagonista izan dadin egin beharreko ikasketetan zentratzen da. Orientazio eta tutoretza alorreko curriculumak ekintza eskumenen garapenera bideratuta dago; hauek garuneko eskemak eraikitzeko eta norbere jokabidea eta besteena ulertzeko aukera ematen dute, baita pertsona erregulatzeko mekanismoak sortzekoa ere.

Alorreko edukiak, gaiaren irizpidearen arabera sailkatuta daude eta lau multzo osatzen dituzte.

1. Proiektu pertsonala:

- Hazkuntza pertsonalarekin, erabakiak hartzearekin eta bizitza osorako proiektu pertsonalarekin zerikusia duten edukiak.

2. Taldeko harremanak:

- Kontzeptuak, prozedurak eta giza taldeen funtzionamenduari, talde kooperatiboarekin eta gatazkak konpontzeko analisiarekin eta erabakiarekin zerikusia duten jarrerak hartzen ditu.

3. Gizarteratzea:

- Gizarte plural baten konpromisoa eta justizia sozialaren inguruko baloreak argitzera bideratua.

4. Lan intelektuala:

- Eskola errendimendua bere osotasunean hobetzen diren eskumenekin lotuta dauden edukiak, ikasketa tekniken aplikazioa eta meta-kognizioa estrategiak.

Eduki multzoak irekita dauden erreferentzia kategoriaz gisa ezartzen dira, ikaslearen garapen mailaren arabera eta bere esperientzia eremuarekin harremanetan edukien betekizuna ahalbidetzen dutenak. Horrela elementu formalen eta bagaje pertsonalaren artean loturak ezarriz. Disziplinen arteko ikuspegi didaktikoak eta eguneroko bizitzaren loturak horretan laguntzen dute. Lantzen ari garen eremuan eduki prozedimentalek eta jarrerakoek garrantzi handia dute.



Hezkuntza eskumenen ikuspegitik, curriculumaren garapenak ikasleei eduki ezberdinez osatutako lanak proposatzen dizkieten metodologiak eskatzen ditu. Hau da, eskumen ekintzek jakintza konbinatorioa eskatzen dute.

Hurrengo koadroan lehen eta bigarren hezkuntzako jarreraren, prozeduren eta kontzeptuen edukiak biltzen dira.

## LEHEN HEZKUNTZAKO EDUKIAK:

### 1. gaikako blokea: Hazkuntza pertsonala eta erabakiak hartzea

KONTZEPTUZKOAK	PROZEDURAZKOAK	JARRERAZKOAK
<ul style="list-style-type: none"><li>Elkarbizitzarako arauak</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>Gatazkak konpontzeko faseak</li><li>Erabakiak hartzeko pausoak</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>Jarrera gogoetatsua eta kritikoa</li><li>autonomia</li><li>Errealismoa</li><li>Ekimena</li><li>Sormena</li></ul>

### 2. gaikako blokea: Besteekiko harremana: komunikazioa eta taldeko lana

KONTZEPTUZKOAK	PROZEDURAZKOAK	JARRERAZKOAK
<ul style="list-style-type: none"><li>Taldeko lana</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>Taldeko lanak egiteko arauak</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>Arreta</li><li>Errespetua</li><li>Malgutasuna</li><li>Lankidetzeta</li><li>Ekimena</li><li>autonomia</li></ul>



### 3. gaikako blokea: Hazkuntza pertsonalerako erreferentzia gisa, balioen eta kulturen aniztasuna

KONTZEPTUZKOAK	PROZEDURAZKOAK	JARRERAZKOAK
<ul style="list-style-type: none"><li>Haurraren eskubideak</li><li>Kultura aniztasuna</li></ul>		<ul style="list-style-type: none"><li>Adiskidetasuna</li><li>Elkartasuna</li><li>Jakin-mina</li><li>Irekitzea</li><li>Errespetua</li></ul>

### 4. gaikako blokea: Eskolako errendimendua

KONTZEPTUZKOAK	PROZEDURAZKOAK	JARRERAZKOAK
<ul style="list-style-type: none"><li>Lan intelektualerako teknikak:</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>Planifikaziorako eta denbora kontrolatzeko irizpideak (eskola-agenda)</li><li>Eskemak egiteko pausoak</li><li>Laburpenak egiteko pausoak</li><li>Kontzeptuzko mapak egiteko pausoak</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>Pertseberantzia</li><li>Diziplina</li><li>Ardura</li><li>Esfortzua</li><li>Arreta</li></ul>

## BIGARREN HEZKUNTZAKO EDUKIAK:

### 1. gaikako blokea: Erabakiak hartzea eta proiektu pertsonala

KONTZEPTUZKOAK	PROZEDURAZKOAK	JARRERAZKOAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Proiektu pertsonala:</li> <li>- Lan mundura sartzeko tresnak</li> <li>- Lan merkatua</li> <li>- Enplegarritasuna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erabakiak hartzeko pausoak</li> <li>• Proiektu pertsonala egiteko pausoak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Jarrera gogoetatsua eta kritikoa</li> <li>• autonomia</li> <li>• Errealismoa</li> <li>• Ekimena</li> <li>• Sormena</li> </ul>

### 2. gaikako blokea: Besteekiko harremana: Komunikazioa, taldeko lana eta gatazken konponbidea

KONTZEPTUZKOAK	PROZEDURAZKOAK	JARRERAZKOAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>• komunikazioa</li> <li>- Elementuak</li> <li>- Motak</li> <li>- Gizarte trebetasunak</li> <li>• Gatazkak</li> <li>• Taldeko lana</li> <li>• Elkarbizitzarako arauak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gatazkak konpontzeko faseak</li> <li>• Taldeko lanak egiteko arauak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Arreta</li> <li>• Errespetua</li> <li>• Enpatia</li> <li>• Malgutasuna</li> <li>• Lankidetzeta</li> <li>• Asertibitatea</li> <li>• autonomia</li> <li>• Ekimena</li> </ul>

### 3. gaikako blokea: Hazkuntza pertsonalerako erreferentzia gisa, balioen eta kulturen aniztasuna

KONTZEPTUZKOAK	PROZEDURAZKOAK	JARRERAZKOAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>Giza eskubideak</li> <li>Interkulturalitatea</li> </ul>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Adiskidetasuna</li> <li>Elkartasuna</li> <li>Jakin-mina</li> <li>Errespetua</li> <li>Irekitzea</li> </ul>

### 4. gaikako blokea: Eskolako errendimendua

KONTZEPTUZKOAK	PROZEDURAZKOAK	JARRERAZKOAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>Lan intelektualerako teknikak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Eskemak egiteko pausoak</li> <li>Laburpenak egiteko pausoak</li> <li>Kontzeptuzko mapak egiteko pausoak</li> <li>Planifikaziorako eta denbora kontrolatzeko irizpideak (eskola-agenda)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Pertseberantzia</li> <li>Esfortzua</li> <li>Diziplina</li> <li>Jakin-mina</li> <li>Sormena</li> <li>Ardura</li> </ul>



## ARLOA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Orientazioak, beste edozer ikasketa prozesuk bezala ebaluazio une ezberdinak ditu, horregatik beharrezkoa da ebaluazioa irizpideak zehaztea. Ebaluazio irizpideak alorreko eskumen orokorrekin zerikusia duten jarrerari dagozkie. Apezazio adierazleak dira, irakaskuntza-ikasketa prozesuaren hasieran, bitartean eta bukaeran.

Kontzeptuak edo trebetasunak modu isolatuan jasotzeak ez du ziurtatzen ekintza konpetentea izatea. Eskumenen ebaluazioa, askotan, osagaien ebaluazioarekin nahasten da (kontzeptu edukiak, prozedurakoak eta jarrerakoak). Hauek mobilizatu egin behar dira behar bezala ekin dezaten.

Eskumenak ebaluatzeko hiru bide osagarri proposatzen dira:

- Eraitzen ebaluazioa eta egindakoarena.
- Ikasketa praktiken analisisa, eta ikasleek jarduerak burutzeko duten moduarena.
- Baliabide pertsonalak: kontzeptuen ebaluazioa, prozedurak edo kalitate pertsonalak.

## LEHEN HEZKUNTZAKO EBALUAZIO IRIZPIDEAK

GAITASUNA	EBALUAZIO IRIZPIDEAK
1.- Norberaren ezagutza lortzea, autoestimu egokia lortzeko eta egoera berriei segurtasunarekin aurre egin ahal izateko.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ezaugarri pertsonalen formula errealismoarekin</li> <li>• Bere hazkuntza pertsonalerako besteen laguntzak duen garrantzia onartzen du</li> <li>• Lortu nahi diren helburuekiko ilusioa eta saiatzeko nahia agertzea</li> <li>• Egoera berriei aurre egiten die</li> <li>• Bere iritziak autonomiaz eta malgutasunez adierazten ditu</li> <li>• Bere ardurak adierazten ditu</li> <li>• Sentimenduak eta emozioak kanporatzen ditu</li> <li>• Ikaskideekin berdintasun harremanak ditu, ez ditu menperatzen edo ez da menperatua izaten</li> </ul>
2.- Eguneroko bizitzako gatazka egoerak eta esperientziak aztertzen ditu, eta erabakiak autonomiaz eta errespetuz hartu ahal izateko alternatibak baloratzen ditu.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eguneroko bizitzan gatazka egoerak identifikatzen ditu</li> <li>• Ikasgelan sortzen diren gatazka egoeratan jarrera pertsonala hartzen du</li> <li>• Unean uneko gertaera eta arazo sozialen inguruko iritzia ematen du</li> <li>• Eguneroko bizitzako pertsonen arteko gatazkak modu pertsonal eta autonomoan konpontzen ditu</li> <li>• Zerbaitekin ados egon ezean, adiskideekin elkarrizketa bilatu</li> </ul>
3.- Ikasgelako bizitzan parte hartzea, funtzionamenduko jardueretan eta erabakietan inplikaturik eta elkarbizitzako arauak errespetatuta. Helburua jarrera arduratsua eta errespetuduna lortzea da.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bere iritzia adierazten du eta taldeak proposatutako jardueretan inplikatzeko da</li> <li>• Zentroak bultzatutako jardueretan parte hartzen du</li> <li>• Lan komunen ardura hartzen du</li> <li>• Hartutako konpromisoen ondorioz sortutako lanak azkeneraino gauzatu</li> <li>• Ekintzak, jolasak, etab. proposatzen ditu.</li> <li>• Elkarbizitza-arauak bete</li> </ul>

<p>4.- Jarrera irekia izanda, eskolako praktikak garatzeko moduari zein esfortzuari buruzko gogoeta egitea, eskolako errendimendua ebaluatzeko eta beharrezko laguntza onartuz, ongi egindako lana baloratuta.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lanak konfiantzarekin ekiten ditu</li> <li>• Lana utzi gabe, zailtasunak eta frustrazioa onartu</li> <li>• Bukatutako eta ongi egindako lanarekin gustura gelditzen da</li> <li>• Eskolako betebeharrei emandako erantzuna modu errealistan baloratzen du</li> <li>• Erabili agenda modu sistematikoan</li> <li>• Bere denbora betebeharren arabera antolatzen du</li> <li>• Eskolako materiala zaindu, antolatu eta txukun jasotzen du</li> <li>• Modu arduratsuan eta ordenatuan eskolako lanak egin</li> <li>• Lanak egin aurretik prestatu</li> <li>• Zalantzak dituenean galdetu egiten du</li> <li>• Informazioa bilatu eta aukeratu egiten du</li> </ul>
<p>5.- Inguruko pertsonekin lankidetzarako, entzuteko eta komunikatzeko jarrerarekin erlazionatzea, baloratu ahal izateko eta besteekin modu kreatiboan jolasteko, gozatzeko eta lan egiteko gai izateko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Taldeko lanetan ikaskideei entzuten die</li> <li>• Planteamendu desberdinen borrokan bere jarrera arrazoitu</li> <li>• Baloratu adiskideen ekarpena</li> <li>• Euren ekarpenei esker, lan komunetan aurrera joatea lortuko da</li> <li>• Besteen lanaren aurrean agertu poza</li> <li>• Besteekin egindako jolasetan parte hartu eta gozatu egiten du</li> <li>• Modu baikorrean komunikatzen da</li> </ul>
<p>6.- Injustizian eta indarkerian oinarritutako egoera sozialen aurrean kontzientzia hartzea, aniztasuna aitortuta eta errespetatuta. Helburua jarrerak justiziaren, berdintasunaren, bakearen eta elkartasunaren balioei erantzutea da aniztasun kulturala nagusi den gizartean.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Justuak ez diren edo haurren eskubideak errespetatzen ez dituzten egoeren aurrean bere jarrera adierazten du</li> <li>• Inguru hurbileko beharren aurrean keinu solidarioak dauzka</li> <li>• Behar sozialen aurrean, laguntzeko eta etorkizunean babesa emateko nahia agertzen du</li> <li>• Kultura ezberdinen aberastasuna baloratu eta interesa adierazten du</li> <li>• Besteiei errespetuz hitz egiten die</li> </ul>

## BIGARREN HEZKUNTZAKO EBALUAZIO IRIZPIDEAK

GAITASUNA	EBALUAZIO IRIZPIDEAK
1.- Norbera ezagutzea eta errealitate sozio-laboralari buruzko gogoeta modu autonomoan egitea, etorkizuneko proiektu pertsonala norberaren gaitasunen eta balioen arabera definitzeko.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ezaugarri pertsonalen formula errealismoarekin</li> <li>• Beretzat egokiak izan daitezkeen etorkizuneko ikasketa eta lan zerrenda egiten du</li> <li>• Etorkizuneko aukera ezberdinen aldeko eta aurkako gauzak aztertzen ditu</li> <li>• Beretzat garrantzitsua dena eta aurrera zergatik egin nahi duen onartzen du</li> <li>• Urte batzuk barru bere errealitatea zein izan daiteke zentzuz deskribatzen du</li> <li>• Lortu nahi diren helburuekiko ilusioa eta saiatzeko nahia agertzea</li> </ul>
2.- Esperientzia propioak analizatzea eta alderatzea zein inguruko pertsona esanguratsuak baloratzea, norberaren irudi positiboa eta autokonfiantzan zein eraginkortasunean oinarritutako sentimenduak garatzeko.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Besteen laguntzaren garrantzia onartzen du</li> <li>• Kualitate, trebetasun, eta lorpen pertsonalak identifikatzen ditu.</li> <li>• Ikaskideekin berdintasun harremanak ditu, ez ditu menperatzen edo ez da menperatua izaten</li> <li>• Bere ideia, iritzi eta sentimenduak baikorki adierazten ditu.</li> </ul>
3.- Bizitzako esperientziak eta egoera gatazkatsu pertsonalak zein sozialak irizpidearekin analizatzea, elkarrizketatik, besteeikiko eraikuntzatik eta balioekiko zein pentsamenduekiko koherentziatik erabaki arduratsuak hartzeko, alternatiba desberdinak baloratuta.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eguneroko bizitzako gatazka egoeratan eragiten duten elementuak identifikatzen ditu</li> <li>• Bizitzan sortzen diren dilemetan jarrera pertsonala hartzen du</li> <li>• Unean uneko gertaera eta arazoaren aurrean zentzuzko iritziak ematen ditu</li> <li>• Eguneroko bizitzako pertsonen arteko gatazkak modu pertsonal eta autonomoan konpontzen ditu</li> <li>• Bere arazoak konpontzeko konfiantza adierazten du</li> <li>• Zerbaitekin ados egon ezean, adiskideekin elkarrizketa bilatu</li> </ul>
4.- Ikasgelako eta zentroko bizitzan parte hartu, elkarbizitza arauak errespetatuz eta jarduera eta funtzionamendurako erabakietan parte hartuz, horrela herritar arduratsu, errespetuzko eta kritiko bihurtuz.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bere iritziak adierazten ditu</li> <li>• Ikasgelak proposatutako jardueretan parte hartzen du</li> <li>• Zentroak proposatutako jardueretan parte hartzen du</li> <li>• Jarduera orokorren deialdiei erantzuten die</li> <li>• Jarduera berriak proposatzen ditu</li> <li>• Lan komunen ardura hartzen du</li> <li>• Hartutako konpromisoen ondorioz sortutako lanak azkeneraino gauzatu</li> <li>• Elkarbizitza-arauak bete</li> </ul>

<p>5.- Jarrera irekia izanda, eskolako praktikak garatzeko moduari zein esfortzuari buruzko gogoeta egitea, eskolako errendimendua ebaluatzeko eta beharrezko hobekuntzak sartzeko, ongi egindako lana baloratuta.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lana utzi gabe, zailtasunak eta frustrazioa onartu</li> <li>• Eskolako betebeharrei erantzuteko modua aztertzen du</li> <li>• Erabili agenda modu sistematikoan</li> <li>• Bere denbora betebeharren arabera antolatzen du</li> <li>• Lanak egin aurretik prestatu</li> <li>• Bere jardueren antolaketa noiz behinka aztertzen du eta emaitzen arabera hobekuntzak sartzen ditu</li> <li>• Eskolako materiala zaindu eta ordenan izaten du</li> <li>• Informazioa aukeratu eta sailkatu egiten du</li> <li>• Bukatutako eta ongi egindako lanarekin gustura gelditzen da</li> <li>• Modu arduratsuan eta ordenatuan eskolako lanak egin</li> </ul>
<p>6.- Inguruko pertsonekin modu sortzailean parte hartzea, beste batzuekin pentsamendua eraikitzea, ideiak eta esperientziak partekatzea, taldean lan egitea eta komunikazio sareak eratzeak duen garrantzia baloratuz.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Entzun eta entzundakoa errepikatzen du ondo ulertu duela ziurtatzeko</li> <li>• Planteamendu desberdinen borrokan bere jarrera arrazoitu</li> <li>• Baloratu adiskideen ekarpena</li> <li>• Eztabaida egoeratan galdetu eta datuak biltzen ditu</li> <li>• Taldeko lanetan ikaskideei laguntzen die</li> <li>• Euren ekarpenei esker, lan komunetan aurrera joatea lortuko da</li> <li>• Taldearen barruan dagokion lan zatia modu arduratsuan onartzen du</li> <li>• Besteen lanaren aurrean agertu poza</li> </ul>
<p>7.- Injustizian eta indarkerian oinarritutako egoera sozialen aurrean modu kritikoan agertzea, aniztasuna aitortuta eta errespetatuta. Helburua jarrerak justiziaren, berdintasunaren, bakearen eta elkartasunaren balioei erantzutea da aniztasun kulturala nagusi den gizartean.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eguneroko bizitzako egoera sozialen atzean dauden baloreak jaso eta deskribatzen ditu</li> <li>• Gizarteko egoerak modu kritikoan aztertzen ditu</li> <li>• Justuak ez diren edo giza-eskubideak errespetatzen ez dituzten egoeren aurrean bere aurkako jarrera adierazten du</li> <li>• Inguru hurbileko beharren aurrean keinu solidarioak dauzka</li> <li>• Behar sozialen aurrean, laguntzeko eta etorkizunean babesa emateko nahia agertzen du</li> <li>• Bere inguruan tolerantzia, elkartasun, justizia, etab. bezalako jarrerak identifikatzen ditu.</li> <li>• Kultura ezberdinen aberastasuna baloratu eta interesa adierazten du</li> </ul>